



**2004tik ari dira elkarrekin kooperatiba eta WWF**

## **AURTEN ERE, WWF-K SUSTATZEN DUEN "PLANETAREN ORDUA" KANPAINAN PARTE HARTUKO DU EROSKI-K**

- Datorren larunbatean, EROSKI bat egingo du ingurumenaren alde munduan egiten den itzalaldi sinbolikorik handienarekin; aurten, "Konektatu naturarekin" leloarekin
- EROSKI eta WWFk urteak daramatzate elkarrekin lanean ingurumenaren aldeko politikak sustatzeko: arrantzalekuen ustiapen iraunkorra, energia efizientziaren hobekuntza eta kontsumo arduratsua

**Elorrio, 2021eko martxoaren 24a.-** [EROSKI](#) hamaikagarren urtez egingo du bat [WWF](#) Nazio Batuen Erakundearen babesarekin antolatzen duen "[Planetaren ordua](#)" kanpainarekin. Hala, itzalaldi sinbolikoa egingo du [www.consumer.es](http://www.consumer.es) webgunean; martxan jarraituko du webak, baina argi apalagoarekin, eta, horrez gain, ekimenaren berri emango du webgunean bertan eta sare sozialetan, eta EROSKI, Caprabok eta Vegalsak ere bat egingo dute. Mundu osoko milioika pertsonak itzaliko dute argia ordubetez (20:30etik 21:30era bitartean, martxoaren 27an, mundua kontzientziatzeko ingurumenaren garrantziaz eta klima aldaketaren kontrako borrokaz.

Aurtengo leloa "Konektatu naturarekin" da, urte erabakigarria baita natura babesteko. Munduko liderrek giltzarrizkoak diren erabaki politikoak hartuko dituzte klimaren eraginerako, garapen iraunkorrerako eta naturaren alderako: 2021eko maiatzean, Kunmingen (Txina) bioaniztasunaren 15. Goi Bilera egingo dute. Bilera hori eta 2021ean Glasgown klimari buruz egingo duten Goi Bilera, funtsezko bi une izango dira mundu osoan plan handinahi bat lortzeko, gizarteak bioaniztasunarekin duen harremana eraldatzeko eta 2050erako naturarekin harmonian bizitzeko ikuspegi partekatua erdiesteko.

*"Aurten ere, EROSKI bat egin du WWFren ekintza horrekin, zeina munduan ingurumenaren alde egiten den ekimenik handiena bihurtu baita. Kontsumitzaileek gero eta eskakizun handiagoak egiten dituzte iraunkortasun irizpideetan eta EROSKI lanean ari gara kontsumo arduratsuaren inguruko eskakizun horiek betetzeko",* esan du EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



## **Konpromisoa klima aldaketaren aurkako borrokarekin**

EROSKIk Osasunaren eta Iraunkortasunaren aldeko hamar konpromisoetan lerro asko ditu ingurumen inpaktua txikitzeko. Helburuen artean du, hain zuzen, %25 murriztea berotegi efektuko gasen emisioa 2025erako. Horretarako, bere produktuen, zerbitzuen, denden eta prozesuen hobekuntzan jarri du indarra.

EROSKI lanean ari da produktu iraunkorragoak eskaintzeko, eta alde horretatik tokian tokiko elikagaiak sustatzen ditu, baita ekoizpen arduratsuagoa bermatzen duten ziurtagiriak ere; esaterako, EROSKI Bio eta Eco produktu sailarekin, 2020an ateratakoa. Hala berean, bere markako ontziak hobetzeko lanean ari da, guztiak ere oso-osorik birziklagarriak izateko, eta 2025erako %20 behintzat gutxitzeko merkaturatutako plastiko kopurua. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira fruta eta berdura pisura saltzeko ahaleginak eta ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko erraztasunak, baita taperrak ere harategian eta arrandegian, sareak frutategian eta errafiazko poltsak, %70 plastiko birziklatua dutenak, eta telazkoak ordainlekuetan.

EROSKIk bere prozesuak ere hobetu ditu ingurumenean duen inpaktua txikitzeko. Produktuen garraioari dagokionez, ibilbideen planifikazioa optimizatu da hornitzaileetatik plataformetaraino eta banaketaraino, eta horien banaketa kapilarra dendetaraino, salgaien betetzea hobetuta eta ibilbideak, gidatzeko denborak, kilometroak eta erregai aurreztuta. Alde horretatik, EROSKIk bere lehen Lean & Green izarra lortu du orain berriki, CO<sub>2</sub> emisioak %20 murrizteko helburua gainditzeagatik bere logistika eta garraio prozesuetan. %25era ere iritsi da laugarren urterako, hasieran ezarritakotik urte bat gutxiago behar izanda.

Bere dendetan energia gutxiago kontsumitzeko, berriz, eraikuntza iraunkorraren alde egin du, eta energia gutxiago behar duten eta ingurumenean eragin txikiagoa duten ekipoak ditu. Nabarmentzekoak dira LED argiztapena, presentzia detektagailuak, tenperaturaren robotak, gutxiago kutsatzen duten hozte gasak eta argi naturala aprobetxatzen duten diseinuak. Gainera, energia berdea erosteko aurrerapenak egin ditu; gaur egun jada bere plataformen %20an egiten du.

EROSKIk, bestalde, bere tresnak ditu neurriok eta informazioa herritarrei helarazteko: *"EROSKIk konpromisoa du kontsumitzaileari ohitura arduratsuagoak erakusteko bai CONSUMER proiektu informatiboaren bidez eta bai EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolaren bidez, zeinak hain zuzen ingurumen modulu bat*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



*baitu WWFk egin. Gainera, gardentasun handiago baterantz goaz gure produktuen ingurumen soslaiaz dihardugula; adibidez, aitzindariak izan gara banaketan marka propioko produktuen ingurumen adierazpenak argitaratzen", esan du Martinez Berriochoak.*

### **Hamabost urtetik gora elkarrekin lanean**

EROSKI eta WWF elkarrekin aritu dira 15 urtez baino gehiagoz, ingurumen politika zenbait aurrera ateratzeko, hala nola arrantzalekuen ustiapen iraunkorra, energia efizientziaren hobekuntza, kontsumo arduratsuagoaren sustapena, arrantza iraunkorraren sustapena, eta jardunbide iraunkor egokikoak diren produktuak EROSKIren marka propioarekin. Horretaz gainera, WWFk kolaboratu egiten du [www.consumer.es](http://www.consumer.es) aldizkarian, bere kanalean ingurumenaren gaineko kontuak argitaratuta, eta abala ematen du elikadura osasungarriari buruz kooperatibak duen programan, [Ekilibrian](#).

Bestalde, WWFk eduki pedagogikoak lantzen dihardu iraunkortasunaren gaineko modulu espezifiko baterako, [EROSKIren Elikadura Eskola](#)ko Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programaren barruan, Espainia guztiko ikastetxeekin elkarlanean.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)